



1. ALDIKO PROBLEMAK ETA SOLUZIOAK

1.- PUZZLEA

Ana eta Koldo neba-arrebei 2006 piezako puzzle bat oparitu diete.

“Bion artean egingo dugu –Koldok Anari – baina honako arau honi jarraituz: gutako bakoitzak, txandaka, 1, 2, 3 edo 4 pieza, nahi duen moduan, kokatuko ditu, eta irabazlea azken pieza ipiniko duena izango da. Neu hasiko naiz, ados?”

Zer erantzun behar dio Anak? Azaldu nork hasi behar duen eta horrek nola jokatu behar duen irabazteko.

SOLUZIOA:

Atzekoz aurrera jokabidea erabilita 2001.a, 1996.a, 1991.a,... kokatzea lortuko duenak irabazi egingo du. Hau da, zati 5 egitean 1eko hondarra ematen dutenak. Beraz, pieza bakarra kokatuz fitxak ipintzen hasiko denak irabaziko du jokoa. Hortik aurrera behar dituen pieza kopurua 6, 11, 16,..., 2001, 2006 zenbakiak lortzeko jarriko ditu.

2.- HOTELA

Hotel bateko okupazio-tasa %88koa da udako hiru hilabeteetan eta %45ekoa urtearen gainontzeko hilabete bakoitzean. Zein da okupazio-tasaren batez-bestekoa? Hoteleko jabeak okupazioko %60era iritsi nahi du eta horretarako eskaintza berezia egin du urteko azken hilabeterako. Zer okupazio-porzentaia lortu beharko luke abenduan %60a lortzeko?

SOLUZIOA

a) Okupazio-tasaren batez-bestekoa: $(3 \cdot 88 + 9 \cdot 45) / 12 = 55,75$

b) %60era iristeko: $60 = (3 \cdot 88 + 8 \cdot 45 + x) / 12 \rightarrow x = 96\%$

3.- KAPIKUAK



- Zein da 3 zifrako zenbaki kapikuen kopurua? Eta zenbat 4 zifrakoak?
- Zure lagun bati 3 zifrako zenbaki kapikua guztiak batzea bururatu zitzaion, baina konturatu gabe zenbaki bat ahaztu zitzaion eta lortu zuen emaitza 49.137 izan zen. Zein izan zen ahaztu zitzaion zenbakia?

SOLUZIOA

- 3 zifrako kapikuak: 90 // 4 zifrako kapikuak: 90 baita ere.
- Batura osoa 49500 da. (Batekoek $(1 + \dots + 9)10 = 450$ batzen dute, hamarrekoei $(1 + \dots + 9)9 = 405$ eta ehunekoek, batekoek bezalaxe, $(1 + \dots + 9)10 = 450$) Beraz, batura osoa $450 + 4050 + 45000 = 49500$ da
Ahaztu zitzaion zenbakia $49500 - 49137 = 363$ da

4.- NOLA IKUSTEN DUZU?

Hona hemen irudiko hiru kubotxoen aurretiko eta albotiko bistak :




Aurretik

Albotik

Margotu 3 kuboen kokapen guztiak aurretik eta albotiko bistek berdin jarrai dezaten.

Beheko eskema baten antzekoa erabil dezakezu



SOLUZIOA:

Badaude beste 5 konfigurazio ezberdin bistak berberak eragiten dituztenak :

